**EBAZPENA, 2026KO OTSAILAREN 11KOA, LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIARENA, ONARTU ETA BAZTERTUTAKO LANGILEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEN DITUENA, BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN DESAGERTZEAR DAGOEN LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOKO IRAKASLEAK INTEGRATZEKO PROZEDURAN.**

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko maiatzaren 3ko Aginduaren bidez, iraungi beharrekoa den Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko irakasleek Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan integratzeko eskaera egin dezaten 2026ko urtarrilaren 19ra bitarte irekitako prozedura onartu zen.

2023ko maiatzaren 3ko Agindu horren I. kapituluaren arabera, 2025eko irailaren 26an, Hezkuntzako sailburuaren 2025eko irailaren 19ko Agindua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, zeinaren bidez onartzen baita Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan integratzeko diren Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko funtzionarioen behin betiko zerrenda, 2025eko abuztuaren 31ra arte irekitako prozeduran egindako eskabideak aztertu eta izapidetu ondoren.

Ebazpen honen kasuan, 2026ko urtarrilaren 19ra arte irekitako prozedura beraren barruan, ezarritako betekizunak eta baldintzak egiaztatu ondoren, 2025eko irailaren 1etik 2026ko urtarrilaren 19ra arte aurkeztu diren eskabideei dagokien ebazpena onartzen da. Ebazpen horren bidez, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko proposatzen diren pertsonen behin-behineko zerrenda onartu da, bai eta eskatutako betekizun eta baldintzaren bat ez betetzeagatik baztertzen direnen behin-

**RESOLUCION DE 11 DE FEBRERO DE 2026, DEL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL, POR LA QUE SE PUBLICAN LOS LISTADOS PROVISIONALES DEL PERSONAL ADMITIDO Y EXCLUIDO EN EL PROCEDIMIENTO DE INTEGRACIÓN DEL PROFESORADO DEL CUERPO, A EXTINGUIR, DE PROFESORAS Y PROFESORES TÉCNICOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL EN EL CUERPO DE PROFESORAS Y PROFESORES DE ENSEÑAZANZA SECUNDARIA.**

Por Orden de 3 de mayo de 2023, del Consejero de Educación, se aprobó el procedimiento abierto hasta el 19 de enero de 2026 para que el profesorado del Cuerpo a extinguir de Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional pudiera solicitar la integración en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria.

Conforme al Capítulo I de dicha Orden de 3 de mayo de 2023, el 26 de septiembre de 2025 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la Orden de 19 de septiembre de 2025, de la Consejera de Educación, por la que se aprueba la relación definitiva de personal funcionario del cuerpo a extinguir, de Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional a integrar en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, tras el análisis y tramitación de las solicitudes realizadas hasta el 31 de agosto de 2025.

En el caso de la presente resolución, dentro del mismo procedimiento abierto hasta el 19 de enero de 2026, una vez realizada la comprobación de los requisitos y condiciones establecidos, se dicta resolución por la que se aprueba la relación provisional de personas que se proponen para ser integradas en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, así como de aquellas que se excluyen por no reunir alguno de los requisitos y condiciones

behineko zerrenda ere, baztertzeko arrazoiak zehaztuta.

exigidos, especificando la causa o causas de exclusión, cuyas solicitudes han sido presentadas entre el 1 de septiembre de 2025 y el 19 de enero de 2026.

Adierazi bezala, Lanbide Heziketa antolatu eta integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren hamaikagarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, eta hori garatzen duena, Urriaren 4ko 800/2022 Errege Dekretuaren 8.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, **2026ko urtarrilaren 19**an amaitu da Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko deialdi irekiaren epea.

Como se ha indicado, a tenor de lo dispuesto en la disposición adicional undécima de la Ley Orgánica 3/2022, de 31 de marzo, de ordenación e integración de la Formación Profesional y, en desarrollo de la misma, lo establecido en el art. 8.3 del Real Decreto 800/2022, de 4 de octubre, el **19 de enero de 2026** ha finalizado el plazo de la convocatoria abierta para la integración en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria.

Horregatik guztiagatik,

Por todo ello,

**EBATZI DUT**

**RESUELVO**

**Lehenengoa**.- Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratzea, jakinarazteko, bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan integratzeko proposatzen diren pertsonen behin-behineko zerrendari buruzko ebazpena, bai eta eskatutako betekizun eta baldintzaren bat ez betetzeagatik kanpoan uzten direnena ere.

**Primero**.- Hacer pública, a efectos de notificación, en la página web del Departamento de Educación, la resolución relativa a la relación provisional de personas que se proponen para ser integradas en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, así como de aquellas que se excluyen por no reunir alguno de los requisitos y condiciones exigidos.

Horretarako, ebazpen honi eranskin hauek eransten zaizkio:

A tal efecto, se adjuntan a la presente Resolución, los siguientes anexos:

1.- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko espezialitateetan sartzeko proposatutako langileen behin-behineko zerrenda, **I. Eranskinean** jasoa. Zerrenda horretan, proposatutako langileak eta behin-behinean zein espezialitatetan integratzen diren adierazten da, integrazio-datan titular direnekin bat datorrena, bai eta horren eragin-data ere.

1.- Relación provisional del personal propuesto para ser integrado en las especialidades del Cuerpo de Profesoras y Profesores de Enseñanza Secundaria, recogido en el **Anexo I**. En dicho listado se relaciona el personal propuesto junto con la especialidad en la que provisionalmente se integran, que coincide con la especialidad en la que se es titular a fecha de la integración, así como la fecha de efectos de esta última.

Titularra den espezialitateaz bestelako espezialitateetan integratzeko eskaerak titular diren espezialitatean egin direla ulertuko da.

Las solicitudes de integración en especialidades distintas de aquéllas en las

que se es titular se entenderán realizadas en la especialidad en la que son titulares.

2.- Prozeduratik kanpo utzitako langileen behin-behineko zerrenda, baztertzeko arrazoia adierazita, **II. Eranskinean**.

2.- Relación provisional del personal excluido del procedimiento, con indicación del motivo de exclusión, recogido en el **Anexo II**.

**Bigarrena**.- Interesdunek egoki iritzitako **erreklamazioak eta uko egiteak** aurkeztu ahal dituzte https://hezigunea.euskadi.eus/eu/ atarian, eta **hamar egun balioduneko epea** izango dute ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**Segundo**.- Las personas interesadas podrán formular las **reclamaciones y renuncias** que estimen convenientes en el portal https://hezigunea.euskadi.eus/es/, en el **plazo de diez días hábiles** contados a partir del día siguiente a la publicación de la presente Resolución.

**Hirugarrena**.- Alegazioak baiestea edo ezestea Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartzeko proposatzen diren pertsonen eta baztertutakoen behin betiko Aginduan inplizituki ulertuko da.

**Tercero.-** La estimación o la desestimación de las alegaciones se entenderá implícita en la Orden definitiva de personas que se proponen para su integración en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria y personas excluidas.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko otsailaren 11n

UNAI NIETO MARIJUAN
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**
**DIRECTOR DE GESTION DE PERSONAL**